

Lezoko KZgunean osasun txartel elektronikoa berria eskuratu daiteke

ADMINISTRAZIO PUBLIKOETAN
ETA OSAKIDETZAN **INTERNET**
BIDEZ ZENBAIT ERAGIKETA
EGITEKO BALIO DU

LEZO. Erabilera anitzeko osasun txartel berria eskuragarri dago Lezoko KZgunean. Plastikozko dokumentu horrek Osakidetzako zerbitzuetarako (medikuarekin hitzordua *online* adostea, mediku aldaketa eskatzea eta abar) sarbidea ahalbideratzen du, baina udal bakoitzeko Internet bidezko zerbitzuak ibiltzeko, Foru Aldundiaren izapideak (errenta aitortzea) egiteko eta gidabaimeneko puntuak kontsultatzeko (administrazio zentrala) aukerak eskaintzen ditu.

Hau da, ordenagailuan txartel irakurgailua erabiliz (KZgunea sareko ordenagailuek teklatuan dituzte aparatu horiek) eta identifikazio gakoak sartuz, izapidetze telematikoak egin daitezke. Osasun Txartel Indibiduala (OTI) duten 16 urtez gorako guztiek eska dezakete.

OTIa lortzeko KZgunean eskaera orriak bete eta NANA aurkeztu behar da. Horren ondoren, Izenpe izeneko sozietate publikoak (hiru foru aldundiek eta Eusko Jaurlaritzak osatzen dutena) interesdunei posta bidez bidaliko dizkie txartelaren gakoak (PIN eta PUK kodeak dituen) biltzen dituen eskutitza. Txartelaren jabeak eskaera egin zuen KZgunean jaso beharko du txartela NANA eta Izenpek bidaldion eskutitza aurkeztuz. >**A.M.**